

BIZKAIERAKO HIZTUNA

“Amama, ez da holan esaten!”

Arrietan izan gara 2006ko zemendiaren 15ean bertako euskaldunen ondarea ahoz joasotzeko asmoz. Bederatzigarren batzar honetara etorri dira, Edurne Torrealdai alkateseagaz batera, Mertxe Gezuraga, Madariaga auzokoa; Patricia Bilbao eta Milagros Abaunza, Agarre auzokoak; Maria Llona, Gereka auzokoa eta Maria Luisa Otazua Libao auzokoa. Gazteena 65. urtean da, zaharrena 79.ean.

Teknikari zein hizkuntzalari zereginetara joan gara, Begoña Bilbao, Iñaki Gaminde eta Juan Luis Goikoetxea, hirurok bere ikasketetan doktore tituludunak.

Saioaren hasikeran, artekoetan legez, ikastera goazela emon dogu iragartera eta emon be argi-argi. Alperrik, baina, itxura baten ze, nahiz eta poz-pezik hurreratzen diran, erantzun deuskue euren euskera ez dala ona; ondo lobatxuek egiten dabela berba. “Guk bakaziñoak esaten dogu, eurek oporrak” eta eurek umeek esaten deuskue: “Amama, ez da holan esaten!”.

Irakurle gurea harritu egin leiteke honelakoak jakitean, gagozen moduan egonik euskera gora eta euskera behera aspaldiko urteetan.

Aiko hemen hizkuntzarentzako esparru barriak irabazten dihardugun egunotan etxeko simenterea saguak jaten.

Ekinak egin diran arren, lehengotan dirau arriskuak. Orain be, euskera eskolan ikasiko umearen berbete amamaren betiko eredu baina hobetzat hartzen jarraitzen da. Dana dala, edozein gutarikok garbitu leike kontua esanik, bizkaieran ezeze lapurteran nahiz gipuzkeran bertan be gertatzen dala fenomeno hori. Bai! Halanda guzti, landara bakoitzari –danak sagararak izanik– bere garraztasuntsua dario. Arrietako amama horrek “Amama ez da holan esaten” entzun ondorik, telebistara jotzen badau, orduan be gax izango jako bere berbekararen antzekoa entzutea; molde barria belarriratuko jako, eleizan ohiturako gertatzen jakonarenetik urrunekoa. Ostera, Euskal Herriko geografiaren erdialdean bizi danari, ez jako antzik be holakorik suertauko.

Egia aitortuko badot, idatzi dodan bizkaierako berbakeradunen pentsakera hau aspaldietan da ezagun. Erabagi be egin zan zer edo ha egitea eta egin bere egiten da. Neure gaurko jardunak be horrexeri bide horri jarraitzen deutso; Arrietako udalak daroana be zer berean doa; baita Mendebalde Kultura Alkarteak-eta daukiena be.

Berez, bizkaierako hiztunak bizkaieraz bizitzea nahiko dau euskaldun izateko. Halanda guzti, 1968a ezkerro, euskara batua be etxe barruraino sartu jako. Eredu hori be etxeko jako eta etxekoago izango jako etorkizunean. Kontu hau nasai aztertzen badogu, konturatuko gara, arterik be bizkaierakoa eredu bakarreko ez dala izan. Joakin Azpiri ondarrutarra, kasurako, gerratean Iparraldean egonik, lapurteraz ikasi eban eta hemen bertan bizi danetik gora, Kateitik harunzkoakaz gipuzkeraz egin ohi dau eta Ondarroakoekin ondarrutarrez.

Zer egin behar da eskolari?

Lekuan lekukotik estandarrera.

Hasieran aitatu badogu, eskolatik etxera heltzen dan ilobea berak baleki legez agertzen dala amamaren aurrean, guk eskolara bertara hurreratu beharko dogu, han zer jokabide erabilten dan jakiteko; erabilten dana artez edo oker egon leitekeen jakiteko.

Ikaslea	Euskara batua	Euskalkia	Azpieuskalkia
I.a Bermeo Batxile- rekoa	Behin batean, amak esan zion Txano Gorritxori amonaren etxera joateko. gaixorik zegoenez, janari apur bat eramatera. Bertarako bidean Txano Gorritxok otsoarekin topo egin zuen eta honek zera esan zion, bere amonaren etxera joateko biderik laburrena hura zela eta ez bestea. Txano Gorritxok jaramon egin zion, baina egia esan, otsoak esandakoa gezurra zen eta otsoa bera abiatu zen amonaren etxera bide laburrenetik. Amonaren etxera heldu zenean hiru jan egin zuen eta bere ohera sartu zen moztorturik.	Behin baten, Txano Gorritxori amak eskatu eutsen janari apur bat erateko amumari hau gaixorik egoalako. Txano Gorritxok esana egin eban eta bidetik lorak hartzen ebilela otso gaizto bat aurkitu eban. Honek esan eutsen bide aproposena, laburrena zalako, ha zala eta ez bestea. Txano Gorritxok kasu egin eutsen, baina otsoa maltzurra zanez, guzurra esan eutsen eta bera izan zan bide laburrena haru ebana, eta ondorioz, arinen heldu zana amumaren etxera. Eixe haretara heldu zanean, amuma jan egin eban...	Egun baten, Txano Gorritxori amak esantxon amumañe jumbidauela jatekue eruten, geisorik dauelako koitxadie. Txano Gorritxok aman esanari kasu eintxon eta han jun zan poz-pozik lorak batzien bidien. Bate halako baten, otso zantar bat agertuten jatxo eta dinotso hovi bidie askoz be luziaue dalez hobeto datortzola beste tik jutie. Beste tentelak kasu eintxon eta badaezpadako otsuek aurrie hartun eta amuman etxera ailega zan askoz be arinau. Honek amuma jan zauen eta ohire barrure sartun zan amuma disfrata.

Abia gaitezen adibide honetatik, ikasleakaz betetako ariketa apropos honetatik.

“Berbetaren berua” –Fernando Muniozgurenek halan deitzen eutsan– ezin argiago identifika geinke hemen. Begira deiogun hirugarren zutabeari, azpieuskalkikoari, laster ohartuko gara horko izenlagunen zein adizlagunen konnotazioaz: *koitxadie, otso zantarra; ohire harrure...*

Bermeoko Eleizalde Ikastolan hezitako ikasle honek –une horretan institutuan ebilenak– hiru berbakeratan mogitzen daki: etxeokan, bizkaiera literarioan eta euskera batuan. Jakina, bakoitza une, egoera, maila egokian erabiliko dau bizitzan. Hizkuntzen irakaskuntzan daukadan esperientziatik, hauxe da gazte euskaldunarentzat euskalkia lantzeko biderik proberxugarriena.

Hiru eruedetan euskaraz bizi dan gazte honek balio handiak beregnatu ditu:

Batetik, hiru moldeak pertsona berberak erabilikeran, beti nahastuko ditu neurri baten. Batuko berbak bizkaierara ekarri-rik edo alderantziz, baina bakotxaren autonomia gordeta, ana-basarik egin barik.

Bigarren, etxeko ama hizkuntzaren ederra ez dau galdu, ez isildu, ezta okertu be. Eder ekarrena eder daroa eta Arrietako amamei ez leuskie inoz esango “Zuk ez dakizu”, ezpada, “Zuk zelan esaten dozu hau edo bestea”. Entzuten irakatsi deuto ikastolak.

Hirugarren, ulertu dau, bizkaiera literarioa etxean jaso dauana osotuta sortzen dala, inguruko herrietakoa be aintzat harturik, arteragokoengandik datorren tradizinoak eredu bihurtuta. Horrexegaitik gertatzen jako natural belarrira jatorkon “eintxon” eredu idatzirako “Egin eutsan” idaztea.

Laugarren, onartu dau euskal herrietatik Euskal Herrira igaroteko euskera batu bat behar dala, lekuan lekuko berbete asko eukirik, euskaldun askok berbete bakarra izan daigun.

Beti ostean datorren geroak erakutsiko deuso, euskeraz bi-
zi *danean*, lagun arterako Bermeokoa *apropos jatorkola*; Biz-
kaia Irratian edo eleizan bizkaiera literarioa entzungo dauala
eta Euskadi Irratian euskera batua. Azken baten, unean uneko
giroak deuso irakatsiko Fishman-ek dinoanez, zein berbeta,
noiz eta norekin erabili.

Ondorioz, zertan oinarrituta erabagi jokabide honek merezi-
du ez dauenik?

Edozelan be, nik hemen garbi antzean idatzi arren, ez da
beti lortzen euskaltzaleak norbere eretxira parajetzea. Ba-
tzuentzat, idazteari jagokonean, nahiko buruhausterik emo-
ten dau euskera batuak berak bakarrik be, orain bizkaierako
gorabeherakaz hasi gaitzan. Beste batzuen ustez, euskera
batua landu ezkeru, eskola umeak etxetik dakarrena be alfa-
betauta dago, ezer gehiago barik, ganerako berbetatan be ez
da halako beharrianik eta. Badira beste batzuk uste dabe-
nak, gure egoera soziolinguistikoak ezinezko bihurtzen
dauela familia erdeldunetakoak eta euskaldunetakoak batera
ikastea, hau da, ez dauela ixten, euskera batua ez dan ere-
duan ikasten.

Gure eretxian, irakasle askok urte askotan euskera batua
zein batuan baino ez dogunez irakatsi, badakigu praktika ho-
rren indarrak noraino ailegatzten diran eta zenbaterainoko
ezintasuna daroan aldean.

Ikasleen artean egineko itaunketek -Maulen, Kanbon,
Bergaran, Txorierrin- erantzun zalantza bakoak eskeintzen
deuskuez. Hortik datozen emaitzak burumin handiegi barik
ulertzekoak dira. Irakatsi ez bada, zer dakar arrarorik 14 ur-
teko neskeak *atzeneko* eguneroko bizitzan darabilena baz-
terturik *azkeneko* idazteak? *Jaramon* etxeakoaren ordeztu, *kasu*
egin idazteak? Berba isildurik *bitz* baino ez idazteak?. *Iraka-*
tsi ezik, zerk ekarri leio jakitea deusut ez dala batua baina
berba bai? Edo behatza eta atzamarra bereiztea oso ondo da-
goela?

Bizkaiera jorratzen ibilirik be sartu geinke hankea, eta sakon, baina landu ezik, derrigorrezkoa da txarto idaztea, berezkoa bizkaiera albo batera lagatea.

Beraz, dakigunetik ez dakigunera da bidca.

Ezagunetik ezezagunera: hurbiletik urrunera

Ezagunetik ezezagunera euskalkiaren arloan da, hurrekotik urrunekora joatea. Hau da, euskararen sistema osokoa geure-geure dogunetik periferikoago gertatzen jakun berbeta moldera.

Dinoguna errez ulertzeko, ez daukagu aztertzea besterik, zer jokabide hartzen dogun formaren bat dala eta zalantzan gagozenean. Orduan, pentsatzen dogu: Gurean zelan esaten da? Gure amamak zelan erabiltzen dau? Horixe bilatzen dogun hori, segurtasuna emoten deuskuna da hurbilekoa. Eta gura doguna da hortixe abiatu-rik ezezagunera jotzea. Eta hori etxean bizkaiera ikasi badozu, horixe da ziurtasuna emoten deusuna.

Sinesgatx egiten jako norberari hainbeste urtean jo eta ke azaltzen jardunik, euskara batuaren oinean eta soinean euskalkiak dirala, oraindik orain gure hamazortzi urteko gazteek –eta ez hain gazteek– bizkaieradunek *galdetu itaundu* baino lehenago erabiltzea; *jausi* dagoanik ahaztuta *erori* baino ez erabiltzea; *etxe bi* esaten dabenek *bi etxe* baino ez aintzat hartzea, hau da, ezagun hurrekoaren orde- z ezezagun ikasia baliozkoa- gotzat hartzea.

Ondorioz, eta jokabide orokor moduan, bizkaiera kontside- ratu da norberak eta inguruak ezagun dauena, eta zer egin da? Ba, inguruko horixe erabili ez, batua idatzi gura danean. Hau da, norberena ez dana hartu batuzat, ikasi dana, urruna. Horretara, ahotan egunero darabilen formen izaeraz jabetu barik dirauela, praktikak berak aldetzen dau ahozko ezagunetik urrunekora. Bizkaieran alfabetatu barik dagoelako Arratiako euskaldunak ederto haren darabilen "Alabca gaixorik dagoan

lez...” bazterturik, euskara estandarreko “Dagoen legez” baino erabilten ez badau, formetarik batek galtzaile urtengo dau; euskera batua baino euskera mehaztua erabiliko dau. –Gure artean bada, ganera, *dagoanez* dala zuzena eta *dagoan legez* –ezjakintasunean– oker dagoala dinoanik

Parametro aldaketak, baina, –Mendebalde Kultura Alkarteko kideak, beste askogaz batera– hurrekoan oinarriturik urrunekoan eragitera eroan gaitu, geurea be besteen plazaraino garraiatzera. Arterago *lortu* aditza euskara unibertsalera zabaldu zan modu berean zabaldu da *ostean* edo *artean*, edo *gura* edo *ataza*. Horretarako, lehenengo geure lurrean egin dogu jorra.

Ezagunetik ezezagunerako bidean: D Ereduetako euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak.

Kulturako ondarea herritarrei itzultzerakoan, baliabide indartsuak erabili izan ditugu teknologia arloan nahiz metodologiari dagokionean.

*“Behin betikoz jakin dezagula, jatorrizko hiztunek daukate-la konpetentzia, eta euskaldun zaharrak ez badira euskaldun, ez da euskararik, arima gabeko euskaranto bil bat baizik”.*¹

Euskaldun zaharrak euskaldun irautea hain garrantzitsua bada, euskara batuaren ondoan euskalkia bere irakatsi egin beharko da, eta behin euskalkia irakatsi ezkerro, ez jakoz maila berean irakatsiko Mungiakoari bizkaiera eta zuberera.

D eredua –halan deitu edo ez euskaraz ikasten dan ereduaz ari gara– bikoiztu egiten da: lehen hizkuntza euskera daben ikasleentzat atxikitze-eredu bihurtu behar leuke –eta erdialdeko euskalki-gune batzuetan hala gertatzen da–, besterik da euskara estandarretik urrundurik diranetan, esate baterako biz-

¹ BAXOK, E. (1986): “Euskara euskalkiak”, in Nazio eta herri mailako barietateen erabilera. ASJU, XXVIII.

kaieran-; beste alde batetik, lehen hizkuntza gaztelera edo frantsesa dabenezat, murgiltze-eredu bihurtzen da.

Ezagunetik ezezagunerako metodologian jardutea guk Ausubelen ikasketa esanguratsuaren barruan kokatuko dugu.

Ikasketa esanguratsura jo ezker, baieztatuko deusku Ausubelek: *“Hezkuntza psikologia guztia printzipio bakarrean bildu behar banau, honelaxe enutziatuko neuke: ikasketan eragirik handiena daukan faktorea, ikasleak badakiena da. Ikertu hori eta irakatsi kontsekuentekei”*.²

Ikasleari euskarako aldaera hori –dala Mungiakoa, Bermeokoa zein Lekeitiokoa– ez jako arrotz gertatzen, nahiz eta bere osotasunean ezagutu ez. Ezagunetik abiatzen da, beraz.

Murgiltze-eredukoa, oster, ohiko ez jakon mintzamoldearen aurrean topatzen da – DBHko ikasleaz eta batxillerrekoaz ari gara-. Honek ezin lei hasieran testu osoa ulertu –ulermena eta ez mintzarena eskatuta bere– gai izan arren galdetzen jakon arlo eta itaun jakinei erantzuten.³

Edozelan bere, aitatz gatozena gaurdainoko egoerarik gchienetarako bada bere, ez da zertan halan gertatu geroan jorkabideak aldaturik, ze metodologia hau Haur eskolatik beretik jarri ezker abian, beste jokaleku batekin aurkituko ginatete DBHko bigarren zikloan zein batxillerrean. Adin haretarik erabili izan balira atxikitze-eredukoentzat eta murgiltze-eredukoentzat estrategia desbardinak, euskalkiaren jabekuntza normalizaturik aurkitu eitekean, beti bere murgiltzera datorren umearen aldamentan dan etxetiko euskalduna, uretan dabilelako familia erdaldunekoa murgiltzera datorrenean.

² AUSUBEL, D.P.; NOVAK, J.D.; HANESIAN, II. (1993): *Psicología evolutiva*. Mexico. Trillas.

³ Erdaldunek euren lehen hizkuntzako maila –2. hizkuntzan murgiltze-ereduari esker lortuko dabena– bermatuta dago, bai eskolaz kanpoko inguruetatik, baita 2. hizkuntzan jasotako ikasketen transferentziagaitik.

Idiolektotik dialektora be bada ezagunetik ezezagunera.

Aita Luis Villasantek (1988) dinoskunez, euskalkia landu behar bada, euskalki horrek bere lekua beharko dau ezagunetik ezezagunerako bidean, norbere etxeko berbetatik hasirik euskalkiko aberastasunez jantzi artean, edo baita euskera batukoz hornidu artean be.

Halantxe dino Weinreichek: "In the present study, two or more languages will be said to be *in contact* if they are used alternately by the same persons. The language-using individuals are thus the locus of the contact."⁴

Beraz, euskalkia eta batuaren arteko ukipen gunea norbanakoarengan jarten dogu, hau da, bizkaiera eta euskara batua darabilzan euskaldunarengan.

Gure diglosia irazia da.

Irazia deritxogu, ehundegian ehuna egitean legez gauzatzen dalako, euskara batuak, euskalki literarioak eta azpieuskalkiak bata besteari harien artetik bilbea igarota

Horretarako, euskara batua euskara estandar idatzitzat hartzen dogu, ez literariotzat, oker ulertu ez daiten. Arrazoia da, literarioan euskalkia jasoago be agertu daitekela, beti euskara batuak A hizkuntza moduan funtzionatu barik euskalkia dan B hizkuntzaren aurrean. Geroago be barriz aitatu dogun aipu hau jatorku harira:

*"Idazmota edo jenero batzuetarako orain ere, eta agian luzarorako, egokiagoak gerta daitezke euskalkiak euskara batua bera baino, ..."*⁵

Euskalkia bera, bestalde, hizkuntza normalizatu, uniformatutzat hartzen da -guztiz halan ez bada be-, ez, beraz, inongo herriko, ez ezelango amaren berbetatzat.

⁴ WEINREICH, U. (1979): *Language in contact*. The Hague. Mouton Publishers.

⁵ VILLASANTE, L. (1988a): *Euskararen auziaz*. Aranzazu. Colección Eleizalde.

“... las variedades designadas como literarias por BONA-PARTE representan formas de lengua normalizadas y, por consiguiente, uniformadas”. (Michelena: 1985).

Argitasunerako, jo daigun probentzalaren kasura. Ertaroan berbeta estandarra zan probentzala, tradizino literario joriduna, baina Frantziako nazio-estatuaren eratzeak *langue d'oïl langue d'oci* nagusitzea suposatu eban. Urte luzez egoera diglosikoa sortarazi eban Probentzan, non frantsesa zan A baricteatea eta probentzala B, horretara, Ferguson-en tipologia osoki betez. Baina gerora, probentzala indarra galduz joan zan heinean egoera desbardina sortu zan.

Txillardegik euskal diglosia proposatzen dau ahotan darabilgun kontzeptua argitzeko. “Baina euskalkien aberastasuna eta ñabartasuna baliatuz, geronen EUSKAL DIGLOSIA antolatu behar dugu (oraingoan Ferguson-en adiera eman nahi diot hitz higatu eta arriskugarri horri). (...). Berariaz erabiliko dut hor “euskal diglosia” hitz bikotea. Geure endoglosia hori *euskararen barruan antolatu* behar baitugu, erdara kanpora aldeko funtzio hutsentzat utziz”⁶

Tradizinoz, euskalkiko forma hutsez jardun gura izatea, beti gertatu izan da esparru ugarran –batez be ahozkoan-, baina euskalki literaria jotzen doguncan, euskalkiko forma hutsez jardun gura izatea, teorikoki kontraesana izateaz ganera –euskalkia arestian baieztatu moduan heteronomoa dalako eta diglosikoa– euskara murriztuz jokatzea izango litzateke, ze beste euskalkietatik euskara batura ekarria galtzeaz ganera, euskara batuak hogeita hamar urtean modernizazinoa ezagutzean erigitako hizkuntza molde asko galarazoko litzateke-eta. Euskara batuak, bere aldetik, euskalkiko aberastasunak bereganatzea diglosia iraziaren koherentzian finkatzen da, batzea sakabana-turiko hizkuntzatik biltzea dalako.

⁶ TXILLARDEGI. (1990): “Soziolinguistika egunak!, in Hizkuntza Hezkuntza. Bilbao. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Euskara batutik euskalkirako ubideak zabalik euki behar dira eta ubideak zabaltzeko giltza euskara maila bakotxean alfabetatzea da.

Euskalkidunak anfibioak gara.

Argi dago, pertsonok irudiak erabili beharra daukagula abstrakzinoari "forma" emoteko, bizkaierari irudi agirikoa, begibistakoa erakutsi eragiteko.

Anfibioa –zentzu jatorrizkoan– uretan eta uretatik kanpo bizi daitekena da; euskalkia dakiena euskera batuaren eremuan zein bizkaieraren eremuan bizi leitekena da.

Zentzu zabalduan, ostera, anfibioa da zapoaren eta ugela-xoaren erakoa, gaztaroan –larba-aldian– uretan bizi izan dana –bizkaieran– zakatzak eukiteagaitik, eta gero heldua danean, lehorrean, arteko organoak galdurik birikadun bilakatzen dana.

Hara puntu honetan oinarrizko eretxi desbardintasuna euskeraren barruko endoglosian. Euskal hizkuntzaren aztertzaileon artean ez gatoz bat. Batzuen eretxiz, anfibioaren zentzu zabaleko izaera dagokio euskalkia-euskara batua dikotomiari. Hots, umezaroan euskalkian bizirik –zakatz eta guzti uretako dalarik– heldutasunean euskara batuan dirauena–birikadun ugela-xoak legez-. Nik uste dot, ostera, euskalkiaren eta euskara batuaren arteko lotura, diglosia ulertzeko, anfibiotasuna zentzu jatorrizkoan hartu behar dala, gaztaroan nahiz heldutasunean orain euskara batuaren eremuan bizitekoa eta hurrengo unean euskalkian. Asko dira horretarako arrazoiak eta datuak.

Mendebalde Kultura Alkarteak be anfibiotasuna jatorrizko zentzuan ulertzen dau. Horrexegaitik dihardu bizkaieraren jorran umeei begira nahiz adinekoei so, bai materialgintzan, baita hausnarketa teorikoetan bere.

Euskara batuaren eremua.

Anekdotak euskara batuan argitaratzen deustiez Berrian domekaro, eta Mendebaldek plazaratuko liburuan bizkaieraz datoz. Hainbat irakurleren ustez, lastimagarria da batuan argitaratzea, asko galtzen dabela-eta.

Bestalde, euskaltzaindiak euskara batua oinarritze eta zedarritze bidean, Hiztegi Batua be garatu dau. Bertan, hitzen zerrendan euskalkiko informazinoa be eskaintzen dau, era horretara, literatura euskalkien ondarea be euskera batuan sartuz, euskalkietako berbak euskara batukoak diralako. Orain, euskalki marka daren berba horreek erabiliz idatzi daiteke euskera batuan. Eta horixe batu molde hori dala uste dogu mendebaldetarrok egin dagigun komeni dana; bizkaierakoak bizkaierakoari idatziko batua.

Horrenbestez, euskara batuan jokatu gura dauenak eremua zehatz finkaturik dauka. Halanda guzti, ez da inongo bermerik bizkaierako diranak edozein idazlek erabili dagizan. Horrexe-gaitik da behar-beharrezko norik bere euskalkiko euskara moldea ez baztertzea.

Halanda ze, euskara batuan bertan gabiltzanean be Mendebaldekook berben artean lehen terminotzat euskalkikoa hartu behar dogu eta ganerako euskalkietakoak sinonimotzat, hurretotik hasirik urrunekora joteko. Hau da, lehen terminotzat *berba* eta ez *hitz*; lehenengotzat *itaundu* eta ez *galdetu*. Horixe izan da Mendebaldetarron filosofia.

Euskara batuan idazten dogunean, norentzat idazten dogu? Zein irakurle daukagu burutan? Nire ustez, bizkaierakoak bizkaierakoari idatziko batua erabiltzea dagokigu. Ze bada euskara batu bat geurea dana, bizkaierakoena.

Geuk ez badogu honetan indar egiten, besteek sistematiko ki euren dabenez aurrenengo, bizkaieran erabilia galdu egingo dau euskarak. Geu gara nor *neba-arreba* erabilteko edo *horma*. Bizkaierakook erabili ezean, euskara batuak galdua dau *neba-arreba*, ez galdua hizkuntzatik, bai hizketatik.

Bizkaieraren eremua.

Luis Baraiazarra idazleak "Nire umetako Meñaka" liburu benetan ederrean, aurkezpena poz giroan egin ostean dinosku tabernan: "Karga astuna kendu joat sorbaldatik; lortu joat, behingoz, ze gogorra da izan be norbera beti idazten ibilirik ama euskaldun hutsari berak ulertzeko erako euskara ezin idatzi izatea.

Halantxe idazten deusku (Villasantek: 1988):

*"Euskaltzaindiak, esate baterako, ez du gaitzki ikusten bizkaiera trakats dadin, baina nahi du literatur tradizioko bizkaiera trakats dadin, eta ez edozer gauza, bizkaieraren aitzakiaz. Gainera, parte hartu du Jaurlaritzak atera duen liburuan: Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta aditza."*⁷

Euskalkiaren eremura etorritik, Hiztegi Batuko herbak -bizk. laburduradunak- bizkaierarako idazkera be emonta datoz; batasuna dakartze euskalkiari ze, Euskaltzaindiak arautu dauen bizkaierarako hitza bardin erabiliko da euskara batuan nahiz bizkaieran.

Arterago esana laburturik, argitu geinke, bizkaieraz idazten nahiz berba egiten dauenak, aurre-aurrean behar dauela inguruan bizi diran berben hiztegia nahiz gramatika; euskararako edonondik etorriak be onak izanik, bizkaierazkoak hartu dagian lehengo.

Abian diran itsasontzi bi dira euskalkia eta euskara batua.

Irudietara jota, bizkaiera eta euskara batua itsasontzi bi dira, helmuga berera doazenak, biak be ibilian dabiltzanak; ez dira bata geldirik dagoan euskalkia eta bestea -euskara batua- dabilena, eta ondorioz, bizkaiera anestesiaturik euskara baturako materialak atarateko ontzia dana, bizkaiera be badabil-eta.

⁷ VILLASANTE, L. (1988a): Euskararen auziaz. Aranzazu. Colección Eleizalde.

Abian diran itsasontzi bi dira bizkaiera eta euskara batua. Euskara batua eten harik dabil bizkaieratik elementuak hartzen: *lortu*; *ostera*; *ataza*; *itaundu*, *lar*. Eta bizkaierak egunero hartzen ditu euskera batutik: *beraz*, *bain zuzen*, etab. Galdera da, baina, ea zeinek hartzen dauen gehiago zeinetatik. Batuak bizkaieratik gehiago? Bizkaierak batutik gehiago?

Dino Ane Azpirik Ondarroako herbetaren haritik, euren aitak entzun ezkerok *Et caetera Ez ete ra. bai ete ra* -erantzuten dauala Hori Ondarroako euskarak baino ezin ekarri leike. Euskera abiatze unean adieraztera emon dogunez, bizitzeko da.

Hemen bizkaiera berbeta bizia dan neurrian erabilten da, jorratzen da, ikertzen da; ez da euskara baturako ekarria egin leiken heinean bakarrik interesgarri, edo ikasketa filologikoetarako intereseko dan neurrian ikergai legez soilik.

Guk herritarrengana jo dogu dakiena eta daukiena jasotzen, ondorik ikertu, hausnartu eta didaktizaturik eskolara, familietara bihurtzeko. Ez da jarduten, beraz, ikerketak bere burua justifikatu dagian bakarrik.

Bizkaieran bizi danak, bizkaierako iturritik sortzen dau euskara osorako be, baina bizkaieran oinarrituta. Aiko hemen adibidea:

*Ni ez nau bildurtzen
beharrak,
ezbeharrak baino.*

Ondarearen didaktizazioa, eskolaratzea.

1.- *Idazleak bizkaieraren ganean eraike leikie euren sormena.*

Idazketa lantzen bagabiltz, eskolako neskeri edo mutilari eskatzen jako, esaten dauen moduan idazteko; zirriborroa belarriaren arabera egiteko, eta beti, gogora nahiz burutara jatorrean berba, esakera, molde edozein, ezezagatik be ez isiltzeko,

ez gordetzeko, eta jarraian, idazlan-zirriborro horretako berbak osorik eta ortografiako akats barik idazteko.

Azkenik, bizkaiera literarioan erredaktatua euskera batuan be idatzi dagian; beti, oso kontuz jokaturik, bizkaierako edozein herba, forma, batuan be sartu dagian, ez baztertu.

2.- *Irakasleak eskura daukan materiala.*

Behin baino sarriagotan irakasleak ez daki bizkaierarik. Holako egoeretarako, eskola-material aproposak dagoz argitaratuta, danantzat be egoki-egokiak dira eta. Materialon artekoak dira geuk Mendebalde Kultura Alkartean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailagaz batera, ikertu eta plaratuokoa: Bata, BIZKAIAN ZEHAR KANTETAN; bestea, BIZKAIAN ZEHAR KONTETAN; Hirugarrena, BIZKAIKO EUSKARAREN ESALDI ETA TESTU EREDUAK.

3.- *Ahozkoa eta idatzia bereiztu egiten dira. Ikusgelan behar-beharrezko dan berbalizazinoa.*

Azken baten, eskolak ahozkoa eta idatzia landu behar ditu. Dana dala, ahozko berbeta eta idatzia mundu bi dira. Ahozkoan denporaren ezpatak, presinoak dana aldatzen dau.

Eskola egunetan egunero sei bat orduz dabilen neskeari edo mutilari bizkaieraz non eta zelan egin errez topeu leike irakasleak, gura bada. Idatziz, abiatzerakoan aitatu dogun erako ariketak eginik edo azterketak-eta zuzentzerakoan oharrak bizkaieraz ipinita... Ahoz, beragaz dagoen guztietan ikaslearena erabilirik. Mila ibilbide da mendian gora igo gura dauenarentzat.

Juan Luis Goikoetxea Arrieta.

2006-11-25.